

AITOR MINGO NAIDER TALDERA ITZULI DA, HIRI-JASANGARRITASUNEKO PROIEKTUETAN BERRIRO LANEAN HASTEKO

Posted on 03/10/2023 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Ciudad sostenible](#), [Naider Lantaldea](#), [Sostenibilidad urbana](#)

Aitor Mingo (Berango, 1993), ingurumen-zientzialaria tokiko iraunkortasuneko, ingurumeneko eta lurralde-garapeneko hainbat proiekturen arduraduna izan zen Naiderrren 2019tik 2022ra egin zuen lehen etapan, eta orain gure lantaldera itzuli da, urtebetez Latinoamerikan zehar bizi eta hazi ondoren. Ezagutza eta esperientzia berriak eskuratu ditu, ingurumen- eta gizarte-arloko hainbat ekimenetan parte hartuz.

Ingurumen Zientzietan graduatua EHUn eta Hiri Jasangarrietako Master Europarra, Aitorrek bere ikuspegi akademikoa, teknikoa eta soziala emango dizkio taldeari, baita prozesuak eta dinamikak programatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko gaitasunak ere.

Ongi etorri etxera, Aitor!

